

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza departamentuak bi informazio-saio antolatu ditu kontratazio telematikoaren funtzionamendua azaltzeko

Urte hasierako plazetara aurkezten diren irakasleek aplikazioaren funtzionamenduaren inguruko dudak argitzeko aukera izango dute

Astelehena, 2018.eko maiatzak 28

Hezkuntza departamentuak iragarri bezala, ekainean sistema telematikoa baliatuko du lehenengoz udaro aurrez aurre egiten den kontratazio masiboa ordezkatzeko, plazarik gabeko funtzionarioen plaza banaketa egin ondoren. Hartara, interesatuek ez dute modu masiboan Departamentura agertu behar izango bete gabeko urte hasierako plazaren bat eskuratu ahal izateko. Kontratazio telematikoa ahalbidetzen duen aplikazioaren funtzionamendua azaltzeko eta sor daitezkeen kezkek argitzeko Hezkuntza Teknologia eta Informazio Sistemen Zerbitzuak bi informazio-saio antolatu ditu asteazkenerako, maiatzak 30, arratsaldeko 16:00etan (gazteleraz) eta 18:00etan (euskaraz).

Informazio saioak Departamentuko Areto Nagusian izango dira eta, gainera, streaming bidez jarraitu ahal izango dira, Departamentuaren webgunean. Gaur egun 12.041 pertsona daude Hezkuntzako 232 zerrendetan izena emanda, euskaraz nahiz gazteleraz.